OINARRIAK: «BERRIOBEITIKO UDALAREN ABONATU GAZTEENTZAKO LAGUNTZA» (2026KO DENBORALDIA)

1 ZER DA?

«Berriobeitiko Udalaren Abonatu Gazteentzako Laguntza» CAJA RURAL DE NAVARRAren GIZARTE EKINTZAK Berriobeitiko Udalarekin elkarlanean bultzatutako ekimena da. 31 urtetik beherakoei zuzenduta dago, eta Artika Kirol Hirian eta Berriobeitiko Kiroldegian kirola egitea sustatzea du helburu, 2026ko abonatuen denboraldian instalazioetara sartzeko hobaria emanez.

Helburua da bizi-ohitura osasungarriak sustatzea, kirola egiteko aukera erraztea eta bi erakundeek gazteekin duten gizarte-konpromisoa indartzea.

60 €-ko hobaria emango zaie adin-tarte horretako abonatuei, 2026an ordaindutako abonamendu-kuotaren gainean, betiere abonamenduaren titularrak badira. Laguntza hau ez da aplikatzen izena emateko kuotetan.

2 NORK ESKA DEZAKE?

Laguntza hau jaso ahal izango dute honako pertsona hauek:

- Eskaera egiten duten unean 31 urte baino gutxiago dituztenek.
- 2026ko abonamendu-kuotak ordaindu dituztela egiaztatzen dutenek, GESPORTen webguneko abonatuaren eremuan lor daitezkeen ordainagiriekin.
- Laguntza eskatzen duten unean CAJA RURAL DE NAVARRAko bezero direnek eta ez direnek; nolanahi ere, laguntza beti erakunde honetako kontu batean ordainduko da, eta eskatzaileak kontu horren titularra izan beharko du.

3 EPEAK ETA DATAK

- Eskaera-epea: 2026/11/01etik 2026/12/31ra arte.
- Kontuan ordaintzea: laguntza gehienez ere 30 egun naturaleko epean ordainduko da, 2026ko ordainagiria edo ordainagiriak jasotzen diren egunetik aurrera, betiere oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badira.

4 NOLA ESKATU?

Dagoeneko Caja Rural de Navarrako bezeroa BAZARA, joan zure bulegora eta eskatu laguntza, 2026ko ordainagiria edo ordainagiriak aurkeztuta.

Caja Rural de Navarrako bezeroa EZ BAZARA:

1. Joan Caja Rural de Navarraren bulego batera, bezero gisa alta eman eta laguntza eskatzeko, 2026ko ordainagiria aurkeztuta. Adingabeek beren legezko tutoreekin joan beharko dute.

2. Online prozesuaren bidez ere eman dezakezu alta bezero gisa («Hazte Cliente»), eta, ondoren, webgunean dagoen inprimakia bete, ordainagiria PDF formatuan erantsita. Online prozesuaren bidez bezero gisa alta emateko, ezinbestekoa da 18 urte baino gehiago izatea.

OINARRIAK: «BERRIOBEITIKO UDALAREN ABONATU GAZTEENTZAKO LAGUNTZA» (2026KO DENBORALDIA)

Nola deskargatu ordainagiria?

1. Sartu Artika Kirol Hiriaren webgunean (artica.provis.es) eta aukeratu euskara (EU).
2. Hasi saioa zure abonatu-kontuarekin (NANa eta pasahitza sartuta).
3. Alboko menuan, sakatu «Facturas-Recibos» (gaztelaniaz agertzen da) eta hautatu data-tartea («tik» eta «arte»). Gaztelaniaz ikusten baduzu, aukeratu berriro euskara (EU).
4. «Fakturak» atalean deskarga daitezke fakturak, «+» ikurra duen botoi berdea sakatuta eta «Inprimatu» hautatuta. PDF formatuan deskargatuko dira automatikoki.

Bi bideo labur utzi dizkizugu, azalpenekin:

- Nola deskargatu zure fakturak · Artika Kirol Hiria (ordenagailua)
- Nola deskargatu zure fakturak · Artika Kirol Hiria (mugikorra)

Gogoratu: 2026an ordainketa bat baino gehiago egin baduzu, egindako ordainketa bakoitzeko ordainagiri bat deskargatu beharko duzu.

Ez dira baliozkoak izango eskaneatutako dokumentuak edo beste aplikazio batzuekin editatutakoak. Jatorrizko dokumentua Artika Kirol Hiriaren webgunetik deskargatu beharko da.

5 BESTE BALDINTZA BATZUK

«Berriobeitiko Udalaren Abonatu Gazteentzako Laguntza» CAJA RURAL DE NAVARRAko bezeroek eta bezero ez direnek eska dezakete; nolanahi ere, laguntza beti CAJA RURAL DE NAVARRAko kontu batean ordainduko da, eta eskatzaileak kontu horren titularra izan beharko du.

Baztertu egingo dira honako pertsona hauek aurkeztutako eskaerak:

- Eskaera-epea amaitzean (2026/12/31) CAJA RURAL DE NAVARRAko kontu baten titular ez direnak.
- Kontua ordainketak jasotzeko blokeatuta dutenak, dokumentazioa eguneratu gabe dutelako edo beste arrazoiren batengatik.
- Oinarri hauetan zehaztutako baldintza eta epe guztiak betetzen ez dituztenak.

6 KONTSULTAK ETA ZALANTZAK

Edozein zalantza edo kontsulta CAJA RURAL DE NAVARRAren edozein bulegotan egin ahal izango da.

7 AZKEN ARGIBIDEAK

«Berriobeitiko Udalaren Abonatu Gazteentzako Laguntza»ren ebazpena oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzearen mende egongo da.

CAJA RURAL DE NAVARRA arduratuko da egiaztatzeaz oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen direla eta aurkeztutako dokumentazioa zuzena eta egiazkoa dela, eta haren erabakia ezin izango da errekurritu.

Erakundeko bezero gisa onartzea, bai eta ekintza honetan parte hartzeko kontuak irekitzea ere, CAJA RURAL DE NAVARRAren kontuak irekitzeko protokoloa betetzearen mende egongo da. Hori betetzen ez bada, ez da laguntzarik ordainduko.

OINARRIAK: «BERRIOBEITIKO UDALAREN ABONATU GAZTEENTZAKO LAGUNTZA» (2026KO DENBORALDIA)

Ekimen honen oinarriak instalazioen webgunean eta Berriobeitiko Udalaren webgunean daude eskuragarri, guztiek ezagut ditzaten, eta parte-hartzaileentzako informazio-bide bakarra dira; ez da onartuko ahozko beste informaziorik.

Ekimen honetan parte hartzeak esan nahi du oinarriak onartzen direla, bai eta CAJA RURAL DE NAVARRAren irizpideak ere, laguntza hauetatik sortutako edozein gai edo desadostasun ebazteko orduan.

8 DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna? Zure datuen tratamenduaren arduraduna CAJA RURAL DE NAVARRA, S.C.C. da, eta haren helbidea Foruen plaza 1, PK 31003, Iruña da. Datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke helbide elektroniko honetan: protecciondedatos@crnavarra.com.

Zer helburutarako? Datuak CAJA RURAL DE NAVARRAren «Berriobeitiko Udalaren Abonatu Gazteentzako Laguntza» ekimenean parte hartzeko eta onuradunei laguntza emateko erabiliko dira.

Zure datuak deialdi hau amaitu eta hurrengo bi hilabeteetan gordeko dira.

Zergatik tratatzen dira zure datuak? – Legitimazioa. Zure datu pertsonalak aurreko paragrafoan adierazitako helburuetarako emandako baimenean oinarrituta tratatuko dira.

Nortzuk dira zure datuen hartzaileak? Ez zaie hirugarrenei daturik lagako, legezko betebeharrik ez badago. Zerbitzuren bateko hornitzaileak izan daitezke hartzaile, baina beti datuen babesaren arloko agintariek onartutako ereduen araberako kontratu eta bermeekin.

Zer eskubide dituzu? Datuen titular gisa, eskubidea duzu datuak eskuratzeko, eguneratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko, bai eta beste eskubide batzuk ere. Horretarako, jo CAJA RURAL DE NAVARRA S.C.C.ra (Foruen plaza 1, PK 31003, Iruña), gure edozein bulegotara edo protecciondedatos@ruralkutxa.com helbide elektronikora, NANaren edo identifikatzeko legezko beste agiri baten kopia erantsita.

Nork bermatzen ditu zure eskubideak? Norengana jo dezakezu erreklamatzeko? Erreklamazio bat aurkeztu nahi baduzu edo Espainian datu pertsonalen tratamenduaren arauketari buruzko informazio gehiago nahi baduzu, eskumena duen agintaritza Datuak Babesteko Espainiako Agentzia da (Jorge Juan, 6, 28001 Madril).